31 nº zbk

Beasaingo Udala

# Beasaindik

*NOVIEMBRE* **2018 AZAROA**

**Udal Aldizkaria** *Revista municipal*

## Azaroaren 23an, EUSKARALDIA martxan!

Ahobizi o Belarriprest, ¿cuál será tu rol en Euskaraldia?

EUSKARALDIA

EUSKARAK 365 EGUN

11 EGUN EUSKARAZ

BEASAIN

EUSKARALDIA

GUTUNA



**Aitor Aldasoro**
Beasaingo alkatea

# HIZKUNTZA OHITURAK ASTIN DITZAGUN

Horixe da Euskaraldia ekimenaren helburu nagusia: herritarren hizkuntza ohiturak aldatzea.
Geroz eta herritar gehiagok daki euskaraz hitz egiten, baina erabilerak ez du modu berean gora egin. Horregatik, ekimen honen bitartez, zein udaletik martxan jarri ditugun hainbat egitasmoren bidez, hala nola, Hizkuntza Errefortzu Zerbitzua, Euskara Kirolean proiektua, Euskara Maratoia, Euskararen Bikain Ziurtagiria… euskararen erabilera da areagotu nahi duguna.

Hain zuzen ere, ekimen horiek guztiak azaltzen aritu naiz berriki Mexikon Meridako alkate eta udal ordezkariei Garabideren eskutik, elkartearekin hizkuntza gutxiagotuak babestu eta sustatzeko helburuarekin sinatua dugun hitzarmenaren baitan.

Euskarak bide bat du egina eta maia hizkuntza sustatu nahian dabiltzanentzat Euskararen adibidea eredugarria da.

Edonola ere urratsak egiten jarraitu behar dugu 11 egunetatik haratago urteko 365 egunetan euskaraz bizi gaitezen. Eta hain zuzen ere, urrats horietako bat da EUSKARALDIA.

Euskal Herri osoan batera egingo da eta garrantzitsua da ez horregatik bakarrik, baizik eta euskaraz egiten dutenetatik hasita, bereziki, hitz egiteko gaitasunik eduki ez arren zerbait ulertu eta euskaraz entzuteko prest dauden herritarrak inplikatu nahi dituelako. Euskaraldiak pertsona horiek aktibatu nahi ditu batez ere, guztiok elkarrekin 11 egunez euskaraz egiteko gai garela frogatzeko. Egingo al dugu proba?

### *Si entiendes el euskera, participa*

*Desde aquí quiero hacer un llamamiento especial a todas aquellas personas que aunque no hablen con soltura euskara son capaces de entenderlo para que participen en el Euskaraldia como BELARRIPREST.*

*Debemos seguir dando pasos hacia la normalización del euskera y creo que esta iniciativa es una gran oportunidad para ello, pero como todo, requiere de la implicación de todas y todos.*

*Es por eso que os invito a participar e intentar cambiar los hábitos lingüísticos para que demostremos que sí podemos vivir en euskera durante 11 días y también los 365 días al año si así nos lo proponemos.*

## BEASAIN HIZKUNTZA POLITIKAN EREDUGARRI



Garabideren eskutik, Aitor Aldasoro alkatea Mexikon izan da Beasainen hizkuntza politika alorrean martxan jarritako egitasmoak azaltzen: Hizkuntza Errefortzu Zerbitzua, Euskaraldia eta kirolean euskara sustatzeko "Euskara kirolera" egitasmoa, besteak beste.

*A través de Garabide, el alcalde ha visitado México para compartir con representantes de Mérida la labor realizada en materia de política lingüística en el municipio de Beasain.*

**AHOBIZI EDO BELARRIPREST IZANGO ZARA?**

Izen-ematea zabalik

izenematea.euskaraldia.eus
beasain.euskaraldia.eus
beasain@euskaraldia.eus
**edo bertatik bertara Igunean**

# KUDEAKETA EKONOMIKOA
GESTIÓN ECONÓMICA

## *Cuentas saneadas y capacidad de inversión en el Ayuntamiento de Beasain*

*Gracias a la gestión eficaz y eficiente de los recursos y al principio de austeridad aplicada, actualmente, el Ayuntamiento cuenta con un remanente de 10 millones de euros que permite dar respuesta a las necesidades actuales y futuras del municipio y las y los beasaindarras, así como hacer frente a las eventualidades que puedan surgir.*

*Debido a que la economía del territorio va en buena dirección, además, el Ayuntamiento percibirá más dinero que otros años del Fondo Foral de Financiación Municipal de la Diputación. Por tanto, tener unas cuentas saneadas ha permitido aprobar durante otro año más las ordenanzas fiscales sin ninguna subida, en beneficio del bolsillo de la ciudadanía.*

**“Diru kontuak saneatuta daude; 10 milioiko soberakina baitu Udalak. Horri esker, beste urte batez zergek eta tasek ez dute igoerarik izan eta etorkizunera begirako inbertsioak egiteko diru funtsa izango du Udalak”**

## *Fondos para inversiones de futuro*

*Además de las iniciativas puestas en marcha el Ayuntamiento ha ido trabajando nuevos proyectos de cara al futuro desarrollo de Beasain en diversos ámbitos: empleo, bienestar, envejecimiento activo, igualdad, vivienda, ocio y deporte, movilidad, etc.*

*Proyectos de gran envergadura como la integración de la playa de vías a la trama urbana, la rehabilitación de Olaran o la reurbanización de la Portería; proyectos para los que Beasain debe estar preparado porque requerirán de grandes inversiones. Es por ello que, el actual equipo de gobierno ha ido reservando fondos para que llegado el momento Beasain pueda hacer frente a estas inversiones y estos proyectos.*

## ETORKIZUNERA BEGIRAKO PROIEKTUAK LANTZEN

### Burdinbide gunea



ADIFekin harremanak hasiak ditu Udalak burdinbide gunea bereganatu eta etorkizunera begira Beasain hegoalderantz garatzeko. Modu honetara, Beasainek lurzoru berriak izango lituzke herriak etorkizunean izan ditzakeen etxebizitza, espazio libre eta azpiegitura eskari eta beharrei erantzuteko, baita herrirako sarbideak aldatzeko ere.

### Olaran



Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako Sailburuarekin bilerak egin dira industriari lotutako aukerak aztertzeko. Olaran kokaleku bat izan daiteke, baina espazioari zein erabilera eman aztertzen ari da oraindik Udala: etxebizitzak, ekintzaileentzako espazioak… Olaranek aukera anitzak eskaintzen baititu.

### Porteria ingurua



Auzoak datozen urteetan eraldatze sakona izango du. CAF jada ari da eraikin berria egiten, ondoren eraisketa lanei ekingo zaie eta azkenik, eremua urbanizatuko du Udalak, espaloiak zabalduz eta errepidearen bi norantzak berreskuratuz, bidegorria mantenduta.

# Ondo ibili ondo izan egitasmoak ekin dio ikasturte berriari



Urriaren 4an izan zen ikasturteko lehen hitzordua. Saioaren ondotik, gainera, Osasun Etxeko arduradunek ohitura osasuntsuei buruzko hitzaldia eskaini zuten.

*Si estas interesado o interesada en participar acércate los jueves a las 10:00h al frontón de Gernika pasealekua y práctica deporte en buena compañía.*

## Puesta en valor del voluntariado







27 elkarte batu ziren Gernika pasealekuan Boluntario Egunaren ospakizunean beren lana ezagutzera emateko eta gizarteratzeko helburuarekin. 2001 urteaz geroztik ia bikoiztu egin da Boluntarioen egunean parte hartzen duten elkarteen kopurua, beraz, elkarte sare indartsu bezain eredugarria dugu Beasainen.

*En la XVII edición del Día del Voluntariado de este año han participado 27 asociaciones. La iniciativa "Madejas contra la violencia sexista", promovida por el Ayuntamiento y Asmube,tejió en la calle. Herriak Elkarlanean fue la ONG homenajeada y Garabide visibilizó su labor junto a Aditu.*

# Laguntza humanitarioan parte hartzen

Getariako Aita Mari Itsasontziak parte hartzen duen May Day Meditarreo proiektuari 15.000 euroko diru laguntza eman dio Beasaingo Udalak laguntza humanitarioa babesteko xedez. Proiektu honen helburua da jatorrizko herrialdeetatik ihesi, mediterraneo itsasoa zeharkatzeko ahaleginean dabiltzan pertsonen bizitzak salbatzea.

*El Ayuntamiento de Beasain ha colaborado en la ayuda humanitaria en el mediterráneo con una donación de 15.000 euros para que el barco Aita Mari de Getaria ayude a salvar las vidas de las personas que tratan de cruzar el mediterráneo.*



## Presentado el proyecto Herrilab a agentes económicos y sociales



Kontziliazio erantzunkidea sustatzea helburu duen Herrilab proiektua Ikertalde enpresak gidatuko du eta dagoeneko Beasaingo eragile ekonomiko eta sozialei aurkeztu zaie.

*Este proyecto impulsado por el Ayuntamiento en colaboración con la Diputación Foral, busca promover la corresponsabilidad en la conciliación laboral, personal, y familiar entre hombres y mujeres.*

# Odolki dastaketa eta barazki ugari urriko azoka berezian

Urriaren 6an ospatutako azoka berezian Beasaingo Odolkiaren Kofradiak antolatuta, Iban Mate Sukaldariak gidatutako odolki dastaketa egin zen. Halaber, udazkeneko barazki ugari izan zen azokan: kalabaza, porruak, brokolia, azelgak, aza… eta noski, erosketak egin zituztenen artean azokako erosketa poltsak banatu ziren.

*Las verduras de temporada y la cata guiada de morcilla protagonizaron la feria especial de octubre.*



# Diversidad musical en Beasain



Jazpaneko argazkiak: Meet me in the North



Beste behin Jazpana Fest jaialdiak hartu zuen Beasain. Guztira, 16 taldek parte hartu zuten Bernedo-enean jarritako karpan. Igartza Musika Programaren baitan ere beste zenbait musika emanaldi eskaini ziren urrian.

*La programación musical de octubre ha estado cargada de actuaciones gracias al Festival Jazzpana Fest y a la programación Igartza Musika. El público Beasaindarra ha podido disfrutar de conciertos como: Loinatz Abesbatza junto a Kalakan, Toundra, Lie Detectors o Rufus, entre muchos otros.*



# Emakumeen presentzia eta lana nabarmendu

Udalaren laguntzarekin, Igartza burdinolan ikusgai izan da “Emakumeen presentzia XX.mendeko Beasaingo merkataritzan” erakusketa. Honek helburu izan du merkatari lanetan dabiltzan eta aritu diren emakumeen lana balioan jartzea eta herriaren garapenean hain funtsezkoa izan den eta ondare balioa duen merkataritza jarduera ezagutzera ematea, emakumeak ardatz hartuta.



*Durante varias semanas Igartza ha acogido la exposición “La presencia de la mujer en el comercio de Beasain” con el objetivo de poner en valor su labor y el papel tan importante que han desarrollado y siguen desarrollando, y es que, son muchas las mujeres que trabajan y han trabajado en el sector comercial y la mayoría de ellas no han recibido el reconocimiento correspondiente por parte de la sociedad. Por ello, esta exposición ha querido reconocer y visualizar el trabajo de las mujeres en el comercio de Beasain en el siglo XX.*

# Dos horas de tu tiempo libre a la semana al servicio de las personas mayores

nagusilan
ADIN NAGUSIKOEN GIZA BOLUNTARIOTZA
VOLUNTARIADO SOCIAL DE MAYORES

# Beasainen




**Boluntario Eguna ospatu berritan, nabarmena da herrian elkarte sarea zabala dela. Elkarte horietako bat da NAGUSILAN.**

**18 urte daramatza elkarteak adineko pertsonei laguntza ematen. 10 pertsonek osatutako talde batekin hasi eta egun 25 boluntario ditu elkarteak. Zahartze aktibo eta osasungarriari lotuta Udalak antolatzen dituen ekimenetan parte hartzeaz gain, beste hainbat egitasmo antolatu eta esparru ezberdinetan laguntza eskaintzen diete Nagusilaneko kideek herriko adineko pertsonei.**

**Boluntario bakoitzak pertsona bat izaten du bere ardurapean, taldean lan egiten dute eta horretarako hilean behin biltzen dira. Udaleko Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean aritzen dira beharra duten pertsona guztiei laguntza emateko.**

***Nagusilan*** *es una asociación de personas voluntarias que tiene como OBJETIVO AYUDAR A LAS PERSONAS DE EDAD, promoviendo el envejecimiento activo y sobre todo, ayudando y acompañando a las personas mayores que necesitan comunicarse con las demás.*

*La asociación lleva 18 años realizando está labor de voluntariado, el grupo comenzó su andadura con 10 personas, de las cuales 5 siguen a día de hoy, y actualmente Nagusilan lo conforman 25 personas voluntarias. Cada mes realizan una reunión para hacer un seguimiento de las personas y de las actividades, ya que en función de la actividad cada voluntario o voluntaria tiene asignada una persona.*

**PERTSONEI LAGUNDU NAHI DIEZU? BOLUNTARIO IZAN NAHI DUZU?**
¿TE GUSTARÍA AYUDAR A PERSONAS MAYORES? ¿QUIERES SER VOLUNTARIO?

**Deitu** Llama **943 47 50 21 | 688 739 523**
**www.nagusilan.eus**

# Ezagutu NAGUSILANeko boluntarioek egiten duten lana

## Conoce el trabajo que realizan las y los voluntarios de NAGUSILAN

### *AYUDA A DOMICILIO*

*Cada semana se realizan visitas de 2-3 horas a domicilio para charlar y acompañar a las personas. En caso de que puedan salir a la calle se les acompaña a dar un paseo y tomar algo, ya que suele ser beneficioso que salgan y se relacionen con otras personas.* ***A día de hoy se visitan 7 personas a domicilio.***

### *SALIDAS A LA FERIA DE LOS MARTES*

*Entre mayo y octubre cada martes se realizan salidas a las ferias con las personas de edad del centro de día y de Arangoiti.* ***En septiembre participaron 20 personas.***

### ELIKAGAI BILKETA ETA BANAKETA



Hileko azken ostegunetan Gurutze Gorriko kideek prestatutako janari poltsak banatzen zaizkie herriko 65 familiei, 220 pertsona janari banaketa horien bitartez artatuz. Bestalde, elikagai bilketa kanpainak egiten dituzte erosketa guneetan, nagusiena Eguberrien aurretik egiten dena. Horren ardura osoa Nagusilanek izaten du eta guztira 120 boluntariok parte hartzen eta laguntzen dute bilketa honetan.

### ARANGOITIKO EGOITZAKO ADINEKO PERTSONEI BISITAK

Etxeetara bisitak egiten diren modu berean, boluntarioak Arangoitira joaten dira bertako adineko pertsonei konpainia egitera. Astean 2-3 orduz haiekin egoten dira eta ateratzeko aukera badute, kanpoan edo herrian bertan, paseoak ematen dituzte. **Arangoitiko zaharren egoitzan 13 pertsonei egiten zaizkie bisitak astero.**

### *SERVICIOS PUNTUALES: CITAS MÉDICAS Y OTRAS GESTIONES*

*Cuando los familiares no pueden acompañar a sus mayores y no tienen con quien ir las citas médicas o a realizar diferentes gestiones, como por ejemplo, ir a la notaría, voluntarios y voluntarias de Nagusilan acompañan a estas personas.* ***En septiembre se ofrecieron 10 servicios puntuales.***

### *ACTIVIDADES DE ANIMACIÓN*



*Una vez a la semana se organizan diferentes actividades en el centro de día y en el hogar de las personas jubiladas: Bingo, juegos de cartas… y también se organizan actividades especiales, por ejemplo en carnavales. Las personas mayores agradecen muchísimo este tipo de actividades que amenizan su tiempo.*

### BOLUNTARIOEN EGUNEAN ERE PARTE HARTUZ



Nagusilaneko kideek  Boluntario egunean stand-a jartzen dute herritarrei Nagusilan zer den eta Nagusilanetik adineko pertsonei nola laguntzen dieten azaltzeko.

### *PARTICIPACIÓN ACTIVA EN LAS ACTIVIDADES ORGANIZADAS POR EL AYUNTAMIENTO: ONDO IBILI ONDO IZAN, BEASAIN LAGUNKOIA*



*Las personas voluntarias de Nagusilan participan de forma activa tanto en los paseos que se realizan cada jueves – Ondo ibili ondo izan- como en la iniciativa Beasain Lagunkoia que tiene como objetivo adecuar el municipio a las necesidades de las personas de edad.*




## DATUEKIN JOLASEAN

**Azaroan bi urte beteko dira Beasainen organikoa eta errefusa biltzeko txipdun edukiontziak jarri zirela. Denbora honetan gaikako bilketa datuek hobera egin dute.**

*En noviembre se cumplen dos años desde que se implantaron el contenedor gris y marrón con chip para la fracción resto y el orgánico. En este tiempo los datos de recogida selectiva han mejorado.*

| **Urtea** *Año* | **Gaikako bilketa tasaren eboluzioa Beasainen** *Evolución de la tasa de recogida selectiva en Beasain* |
|---|---|
| **2016** | **%54** |
| **2017** | **%75** |
| **2018** | **%76** |

## JAKINARAZPENAK
## *NOTIFICACIONES*

**EGUTEGI FISKALA** *CALENDARIO FISCAL*

| **ZERGAK ETA TASAK** *IMPUESTOS Y TASAS* | **Kobrantza epea** *Periodo de cobro* |
|---|---|
| **Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga (J.E.Z.)** *Impuesto sobre Actividades Económicas (I.A.E.)* | **2018.10.01 - 2018.11.10** |
| **Kioskoak herri bidean** *Quioscos en la vía pública* | **2018.10.01 - 2018.12.01** |

**Azaroaren 23tik abenduaren 3ra PARTE HARTU EUSKARALDIAN**

PARTICIPA EN EL EUSKARALDIA del 23 de noviembre al 3 de diciembre

EUSKARALDIA

## LOTURAK *ENLACES*

- **Antzizar kiroldegia** www.antzizar.net
- **Udal Euskaltegia** www.beasain.eus/euskaltegia
- **kzGunea** www.kzgunea.eus
- **Igartzako Monumentu Multzoa** www.igartza.eus
- **Musika Eskola** www.beasaingomusikaeskola.eus

**www.beasain.eus**

Lege gordailua SS 403-2016

**Beasaingo** Udala